

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

11215 13/2013 Errege Lege Dekretua, urriaren 25ekoa, zeinaren bidez 17.421.238.125 euro ematen diren guztira kreditu osagarritan, honako hauetarako: Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsari mailegu bat emateko, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak Kanarietako IV. Enplegu Plan Integralerako egin beharrekoa duen ekarpena finantzatzeko, Espainiak Immunizaziorako Nazioarteko Finantzaketa Funtsean izan behar duen parte hartzea hornitzeko eta Ibilgailu Eraginkorarentzako Pizgarrien Programarako laugarren deialdirako (PIVE 4).

Errege lege-dekretu honen helburua da kreditu osagarriak ematea Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren aurrekonturako; Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioarenerako, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikorako kreditu osagarria emanda aldi berean; Atzerri Gaietako eta Lankidetzako Ministerioarenerako eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioarenerako, honako behar hauek estaltzeko:

1. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren aurrekonturako kreditu osagarria, 17.300.000.000 euroko mailegu bat emateko Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsari, ekainaren 28ko 8/2013 Errege Lege Dekretua betetzeko eta erakunde horrek hitzartutako mailegu sindikatua amortizatzen.

Toki-administrazioentzako entitateen hornitzaileei ordaintzeko finantzaketa-mekanismo bat ezartzeko informazio-betebeharrak eta beharrezko prozedurak ezartzen dituen otsailaren 24ko 4/2012 Errege Lege Dekretuak onartu zuen finantza-mekanismoari atxiki dakizkioke toki-erakundeak edo horien mendeko organismo eta erakundeak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren aplikazio-eremuan jasotako obra-, zerbitzu- edo hornidura-kontratuengatik hornitzaileekin ordaintzeke dituzten betebeharrak iraungi, likido eta galdagarriak badituzte.

Finantzazio-mekanismo hori autonomia-erkidegoei zabaldu zitzaizkion, Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluaren 2012ko martxoaren 22ko erabakiaren arabera; erabaki horrek autonomia-erkidegoen hornitzaileei ordaintzeko finantzaketa-mekanismoa abian jartzen du eta Lehendakaritza Ministerioaren apirilaren 16ko PRE/774/2012 Aginduaren bidez argitaratu zen.

Martxoaren 9ko 7/2012 Errege Lege Dekretuak eratu zuen Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsa zuzenbide publikoko erakunde gisa, eta izaera juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa ditu. Gainera, merkatuetan era guztietako zorpetze-eragiketak egiteko ahalmena du, Estatuaren berme osoaz, baita tokiko erakundeekin eta autonomia-erkidegoekin haien obligazioak ordaintzeko beharrezko kreditu-eragiketak gauzatzeko ere.

Errege lege-dekretu honen xedea da 17.300.000.000 euroko kreditu osagarri bat ematea Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren aurrekontuan, Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsari mailegu bat emateko. Baliabide horiek bi xede desberdinetara zuzenduko dira: alde batetik, Funtsak 2012an egindako zorra alde aurretik amortizatzen, eta, bestetik, Funtsaren finantzazio-mekanismoaren fase berriaren aplikazio-esparruko betebeharrak ordaintzen. Fase berri hori herri-administrazioen berankortasunaren kontrako eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeekin laguntzeko premia neurri buruzko ekainaren 28ko 8/2013 Errege Lege Dekretuan ezarri zen. Honako hauek dira xehetasunak:

– 2012ko maiatzaren 16an hainbat finantza-erakunderekin sinatutako 11.900.000.000 euroko mailegutik ordaintzeko dagoen guztizko saldo bizia amortizatzea.

2012ko maiatzaren 16an mailegu sindikatuko kontratu bat sinatu zuten Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzazio Funtsak eta hainbat finantza-erakundek, 30.000.000.000 euroko merkataritza-mailegu bat emateko.

Egun, beharrezkotzat jotzen da mailegu sindikatutik ordaintzeko geratzen diren 11.900.000.000 euroak amortizatzea, Estatuak Funtsari egindako mailegu baten bidez beste hori amortizatzeak eragiketa bizirik mantentzea baino finantza-kostu txikiagoa baitu.

– Toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoen hornitzaileei ordaintzeko mekanismoaren hurrengo fasea 5.400.000.000 euroekin finantzatzea, 8/2013 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Herri-administrazioen berankortasunaren kontrako eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeei laguntzeko premia neurri buruzko ekainaren 28ko 8/2013 Errege Lege Dekretuak ezartzen duenez toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoen hornitzaileei ordaintzeko mekanismoaren beste fase bat jarriko dela abian, Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzazio Funtsak finantzazioa lortu behar du, arestian aipatutako xedapenean baimendutako zor-mailaren barnean, eta horixe egin nahi da aurreikusitako ordainketak egiteko mailegu honekin.

2. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren aurrekontuan kreditu osagarria ematea eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuan kreditu gehigarria ematea, Kanarietako IV. Enplegu Plan Integralari 42.000.000 euroko ekarpena egiteko.

Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren aurrekontuko kreditu osagarriaren eta aldi berean Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuko kreditu gehigarriaren xedea da Kanarietako Autonomia Erkidegoko IV. Enplegu Plan Integralari egingo zaion 42.000.000 euroko ekarpena finantzatzea. Ekarpene hori 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 2/2012 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarri zen.

Xedapen gehigarri horrek adierazten du, Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen bosgarren xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak 42.000.000 euroko ekarpena egingo duela 2012an, Kanarietako Autonomia Erkidegoko IV. Enplegu Plana finantzatzeko.

3. Atzerri Gaietako eta Lankidetzako Ministerioaren 9.238.125 euroko kreditu osagarria ematea, Espainiak Immunizaziorako Nazioarteko Finantzaketa Funtsean duen partaidetzaren 2013ko kuota ordaintzeko.

Immunizaziorako Nazioarteko Finantzaketa Funtsearen helburua da Txertoen Batasun Nagusiari funtsak ematea immunizazio-kanpaina masiboak egiteko. Espainiak 2006an egin zuen bat funts horrekin, 20 urteko kuotatan 189.500.000 euro ordaintzeko konpromisoarekin.

Egungo ekitaldian, 9.238.125 euroko kuota ordaindu behar da, eta ordaintzeko azken eguna, atxikitze akordioan ezarritako baldintzen arabera, 2013ko urriaren 31 da.

Aurreko ekitaldietan kuota hori Garapena Sustatzeko Funtsean (FONPRODE) kargura finantzatu da, baina ekitaldi honetan ezin da prozedura horrekin jarraitu, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 58. bi artikulua ez baitu aukerarik ematen FONPROFEk eragiketarik finantzatzeko, dirua berreskuratuko ez badu.

4. Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren aurrekontuan 70.000.000 euroko kreditu osagarria ematea, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) Ibilgailu Eraginkorarentzako Pizgarrien Programaren (PIVE 4) laugarren deialdia finantzatzeko.

Gobernuaren ustez, Ibilgailu Eraginkorarentzako Pizgarrien Programak (PIVE programa) ondorio positiboak izan ditu; lehen hiru deialdietan (PIVE, PIVE-2 eta PIVE-3) eragin oso ona izan du alderdi guztietan, bereziki sektorean enplegua sortzeari eta mantentzeari dagokionez, bai eta ingurumenari eta energia-eraginkortasuna hobetzeari dagokienez ere. Izan ere, PIVE-3 programak hain harrera ona izan du ezen horretarako jarritako 70.000.000 euroak ez baitira nahikoa izan programa hasieran aurreikusitako hamabi hilabeteetan indarrean mantentzeko.

PIVE programak kenteak eragin negatiboa izango luke automobilaren merkatuan eta eragin hori saihestu egin behar da. Hori dela-eta, Gobernuak erabaki du PIVE programaren laugarren deialdia ezartzea (PIVE-4), Ministro Kontseiluaren 2011ko uztailaren 29ko Erabakiak onartutako Energia Eraginkortasunerako 2011-2020 Ekintza Planaren baitan. PIVE 4 programan diru-laguntzak emateko prozedura Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera ezarriko da.

PIVE programaren (PIVE-4) finantzazioari dagokionez, neurria hartu zenean ez zen nahikoa kreditu xedatu Estatuko egungo aurrekontu orokorretan, eta ezinbestekotzat jotzen da laguntzak laster ordaintzea, aipatutako onurak lortzen jarraitzeko.

Aipatutako arrazoiek eta adierazitako beharrei epe jakin batean erantzun beharrak eragiten dute Estatuko aurrekontuetan kreditu osagarriak eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuan kreditu gehigarria eman behar izatea errege lege-dekretu bidez.

Horregatik guztiagatik, Konstituzioaren 86. artikuluko baimenaz baliatuta, Ogasun eta Herri Administrazioako ministroak proposatuta, Estatu Kontseiluarekin bat etorri eta Ministro Kontseiluak 2013ko urriaren 25eko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Kreditu osagarri bat ematea Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren aurrekontuan.*

1. Ekainaren 28ko 8/2013 Errege Lege Dekretuan aurreikusi bezala toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoen hornitzaileei ordaintzeko finantzazio-mekanismoaren aplikazio-eremuko betebeharrak ordaintzeko eta Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzazio Funtsetan zorra aurrez amortizatzeko, 17.300.000.000 euroko kreditu osagarria ematen da, indarreko aurrekontuaren kontzeptu honetan: 27. atala, «Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa»; 03 zerbitzua, «Ekonomiako eta Enpresa Babeseko Estatu Idazkaritza»; 931M programa, «Aurreikuspen eta Politika Ekonomikoa»; 8. kapitulua, «Aktibo Finantzarioak»; 82. artikulua, «Sektore publikoari maileguak ematea»; 823 kontzeptua, «Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtsetarako mailegua».

2. Aurreko atalean ematen den kreditu osagarriaren ondorioz, Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzazio Funtsetan ustiapenerako aurrekontuak eta kapitala lege-dekretu honen eranskinean ezarritakoaren arabera geratzen dira.

2. artikulua. *Kreditu osagarria ematea Enplegu eta Gizarte Segurantzza ministerioan aurrekontuan eta kreditu gehigarria Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa erakunde autonomoaren aurrekontuan.*

1. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak Kanarietako Autonomia Erkidegoaren IV. Enplegu Plan Integralari 2012an egin beharreko ekarpena finantzatzeko, 42.000.000 euroko kreditu osagarria baimentzen da aurrekontuaren kontzeptu honetan: 19. atala, «Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa»; 03 zerbitzua, «Enplegurako Estatu Idazkaritza»; 0000X programa, «Barneko transferentziak», 4. kapitulua, «Transferentzia arruntak»; 413. kontzeptua, «Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, Kanarietan 2012ko Enplegu Plana finantzatzeko».

2. Aurreko paragrafoan emandako kreditu osagarriak 42.000.000 euro gehituko ditu honako kontzeptu honetan: 19.101 erakunde autonomoaren ->Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa- sarreraren aurrekontua; 19.101.400.02 aurrekontu-aplikazioa, «Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontua finantzatzeko».

3. Baimena ematen da 42.000.000 euroko kreditu gehigarria emateko honako kontzeptu honetan: 19.101 erakunde autonomoaren ->Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa- gastu-aurrekontua; 241A programa, «Laneratzea eta lan-egonkortasuna sustatzea»; 455 kontzeptua, «Autonomia-erkidegoekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenen bidezko enplegu-plan integralak eta lan-arloko bestelako jarduerak»; 10 azpikontzeptua, «Kanariak».

3. artikulua. *Kreditu gehigarria ematea Atzerri Gaiak eta Lankidetzaren Ministerioaren aurrekontuan.*

Espainiak Immunizazioarako Nazioarteko Finantzaketa Funtsean duen parte-hartzeari dagokion 2013ko ordainketari aurre egiteko, 9.238.125 euroko kreditu osagarria ematen da honako kontzeptu honetan: 12. atala, «Atzerri Gaiak eta Lankidetzaren Ministerioa»; 03 zerbitzua, «Nazioarteko Lankidetzarako eta Iberoamerikarako Estatu Idazkaritza»; 143A programa, «Garapenerako Lankidetzaren»; 4. kapitulua, «Transferentzia arruntak»; 49. artikulua, «Kanporakoak»; 496 kontzeptua, «Immunizazioarako Nazioarteko Finantzaketa Funtserako ekarpena».

4. artikulua. *Kreditu osagarri bat ematea Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren aurrekontuan, Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuarentzat (IDAE).*

70.000.000 euroko kreditu osagarria ematen da, honako kontzeptu honetan: 20. atala, «Industria, Energia eta Turismo Ministerioa»; 18. zerbitzua, «Energiaren Estatu idazkaritza»; 425A programa, «Araudia eta energia-garapena»; 746 kontzeptua, «IDAERI, Ibilgailu Eraginkorraren gaineko pizgarrien programarako (PIVE-4)».

5. artikulua. *Kreditu osagarrien finantzaketa.*

Errege lege-dekretu honetan ematen diren kreditu osagarriak eta, zeharka, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekonturako kreditu gehigarria zor publikoarekin finantzatuko dira.

Azken xedapen bakarra. *Indarrean sartzea.*

Errege lege-dekretu hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egun berean sartuko da indarrean.

Madriren emana, 2013ko urriaren 25ean.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko jarduneko presidentea,
SORAYA SAÉNZ DE SANTAMARÍA ANTÓN

ERANSKINA

ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK

2013. URTEA

Erakundea: HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO FINANTZAKETA-FUNTSA

(mila euro)

USTIAPENERAKO AURREKONTUA, "GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA"

A) ERAGIKETA JARRAITUAK

1. NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA

- a) Salmentak
- b) Zerbitzu-emateak

2. PRODUKTU AMAITUEN ETA FABRIKATZEN ARI DIRENEN IZAKINETAKO ALDAKUNTZA

3. ENPRESAK BERE AKTIBORAKO EGINDAKO LANAK

4. HORNIDURAK

- a) Salgaien kontsumoa
- b) Lehengaien eta bestelako ondasun kontsumigarrien kontsumoa
- c) Beste enpresa batzuk egindako lanak
- d) Salgaiak, lehengaiak eta bestelako hornidurak hondatzea

5. USTIAPENAREN BESTELAKO SARRERAK

- a) Sarrera osagarriak eta gestio arrunteko beste batzuk
- b) Ekitaldiaren emaitzan sartutako ustiapenerako diru-laguntzak
 - Estatuko Administrazio Orokorrarenak
 - Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoenak
 - Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoko beste batzuenak
 - Enpresa- edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoarenak
 - Europar Batasunarenak
 - Beste batzuenak
- c) Ustiapeneko diru-laguntzen egozpena

6. PERTSONAL-GASTUAK

-1.680

- a) Lansariak eta soldadak -1.454
- b) Kalte-ordainak
- c) Enpresaren konturako gizarte-segurantza -226
- d) Beste batzuk

7. USTIAPENEN BESTELAKO GASTUAK

-100.269

- a) Kanpoko zerbitzuak -100.033
- b) Tributuak
- c) Merkataritza-eragiketengatik galdu, hondatu edo aldatutako hornidurak
- d) Gestio arrunteko beste gastu batzuk -236

8. IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA

ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK

2013. URTEA

Erakundea: HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO FINANTZAKETA-FUNTSA

(mila euro)

USTIAPENERAKO AURREKONTUA, "GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA"

9. IBILGETU EZ-FINANTZARIKO DIRU-LAGUNTZEN ETA BESTELAKOEN EGOZPENA

10. HORNIDURA-SOBERAK

11. HONDATZEA ETA IBILGETUA BESTERENTZEAREN EMAITZA

a) Hondatzeak eta galerak

b) Besterentzearen emaitzak eta beste batzuk

12. NEGOZIO-KONBINAZIOEN DIFERENTZIA NEGATIBOA

13. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK ETA ERAKUNDEAK EGINDAKO TRANSFERENTZIAK.

- Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoari

- Enpresa- edo fundazio-izaerako estatuko sektore publikoari

- Beste batzuei

14. BESTELAKO EMAITZAK

15. HONDATZEA ETA PARTAIDETZA KONTSOLIDATUAK BESTERENTZEAREN EMAITZA

16. SOZIETATE KONTSOLIDATUEN KONTSOLIDAZIO-DIFERENTZIA NEGATIBOA

A.1) USTIAPENAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13+14+15+16)

-101.949

17. FINANTZA-SARRERAK

1.593.533

a) Ondare-tresnetan izandako parte-hartzeetakoak

a1) Taldeko enpresa elkartuetakoak

a2) Hirugarren batzuetakoak

b) Balio negoziagarrietakoak eta beste finantza-tresna batzuetakoak

1.593.533

b1) Taldeko enpresetakoak eta enpresa elkartuetakoak

b2) Hirugarren batzuetakoak

1.593.533

18. FINANTZA-GASTUAK

-1.508.050

a) Taldeko enprekin eta elkartuekin zorrak izategatik

b) Hirugarrenekin zorrak izateagatik

-1.508.050

c) Hornidurak eguneratzeagatik

19. FINANTZA-TRESNETAKO ARRAZOIZKO BALIOA ALDATZEA

a) Negozio-zorroa eta beste batzuk

b) Salmentarako eskura dauden finantza-aktiboak ekitaldiko emaitzara egozte

ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK
2013. URTEA**Erakundea: HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO FINANTZAKETA-FUNTSA****(mila euro)****USTIAPENERAKO AURREKONTUA, "GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA"****20. TRUKE-DIFERENTZIAK****21. HONDATZEA ETA FINANTZA-TRESNAK BESTERENTZEAGATIKO EMAITZAK****a) Hondatzeak eta galerak****b) Besterentzeagatiko emaitzak eta beste batzuk****22. DIRU-LAGUNTZA, DOHAINTZA ETA FINANTZA-IZAERAKO LEGATUEN EGOZPENA****23. FINANTZA-GASTUAN AKTIBOAK SARTZEA****A.2) FINANTZA-EMAITZA (17+18+19+20+21+22+23)****85.483****24. BALIOKIDETASUNEAN JARRITAKO SOZIETATEEN ETEKINETAKO (GALERAK) PARTAIDETZA****25. HONDATZEA ETA BALIOKIDETASUNEAN JARRITAKO PARTAIDETZAK BESTERENTZEAGATIKO EMAITZAK****26. BALIOKIDETASUNEAN JARRITAKO SOZIETATEEN FINKATZEAREN DIFERENTZIA NEGATIBOA****A.3) EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A.1+A.2+24+25+26)****-16.466****27. ETEKINEN GAINEKO ZERGAK****A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN BIDEZ EKITALDIAN LORTURIKO EMAITZAK (A.3 +27)****-16.466****B) ERAGIKETA ETENAK****28. ERAGIKETA ETENETAKO EKITALDIKO EMAITZA GARBIA****A.5) EKITALDIKO EMAITZA (A.4+28) (29+A.6)****-16.466****29. KANPOKO BAZKIDEEI EGOTZITAKO EMAITZA****A.6) ERAKUNDEAREN EMAITZA/ERAKUNDE NAGUSIARI EGOTZITAKO EMAITZA****-16.466**

ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK
2013. URTEA

Erakundea: HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO FINANTZAKETA-FUNTSA

(mila euro)

KAPITAL-AURREKONTUA, "ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA"

A) USTIAPEN-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK

1. EKITALDIKO EMAITZA, ZERGEN AURRETIK **-16.466**

2. EMAITZAREN DOIKUNTZAK **-85.483**

a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)

b) Hondatzeagatik egindako balorazio-zuzenketak (+/-)

c) Horniduren aldakuntza (+/-)

d) Diru-laguntzen egozpena (-)

e) Ibilgetuaren baja eta besterenteengatiko emaitzak (+/-)

f) Finantza-tresnen baja eta besterenteengatiko emaitzak (+/-)

g) Finantza-sarrerak (-)

-1.593.533

h) Finantza-gastuak (+)

1.508.050

i) Truke-diferentziak (+/-)

j) Arrazoizko balioaren aldaketa finantza-tresnetan (+/-)

k) Bestelako sarrerak eta gastuak (+/-)

l) Baliokidetasunean jarritako sozietateen etekinetak (galerak) partaidetza -dibidenduetatik garbi- (+/-)

3. KAPITAL ARRUNTEKO ALDAKETAK **77.771**

a) Izakinak (+/-)

b) Zordunak eta kobratzeke dauden beste kontu batzuk (+/-)

c) Beste aktibo arrunt batzuk (+/-)

d) Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk (+/-)

77.771

e) Beste pasibo arrunt batzuk (+/-)

f) Arruntak ez diren beste aktibo eta pasibo batzuk (+/-)

4. USTIAPEN-JARDUERETAKO BESTELAKO ESKUDIRU-FLUXUAK **85.483**

a) Interesak ordaintzea (-)

-1.508.050

b) Dibidenduak kobratzea (+)

c) Interesak kobratzea (+)

1.593.533

d) Etekinaren gaineko zergagatiko kobrantza (ordainketak) (+/-)

e) Beste ordainketa batzuk (kobrantzak) (+/-)

5. USTIAPEN-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK (+/-1+/-2+/-3+/-4) **61.305**

ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK

2013. URTEA

Erakundea: HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO FINANTZAKETA-FUNTSA

(mila euro)

KAPITAL-AURREKONTUA "ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA"

B) INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK

6. INBERTSIOEN ORDAINKETAK (-) -6.541.949

a) Taldeko enpresak eta elkartuak

b) Ibilgetu ez-materiala

c) Ibilgetu materiala

d) Ondasun higiezinetak inbertsioa

e) Beste finantza-aktibo batzuk -6.541.949

f) Salmentarako mantendutako aktibo ez-arruntak

g) Beste aktibo batzuk

h) Negozio-unitatea

7. INBERTSIOENGATIKO KOBRANTZAK (+)

a) Taldeko enpresak eta elkartuak

b) Ibilgetu ez-materiala

c) Ibilgetu materiala

d) Ondasun higiezinetak inbertsioa

e) Beste finantza-aktibo batzuk

f) Salmentarako mantendutako aktibo ez-arruntak

g) Beste aktibo batzuk

h) Negozio-unitatea

8. INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK (7-6) -6.541.949

C) FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK

9. KOBRANTZAK ETA ORDAINKETAK ONDARE-TRESNENGATIK

a) Ondare-tresnen jaulkipena (+)

- Estatuko Administrazio Orokorrarenak

- Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoenak

- Estatuko sektore publikoko administrazio-izaerako beste batzuenak

- Estatuko sektore publikoko enpresa- edo fundazio-izaerako enak

- Beste batzuenak

b) Ondare-tresnen amortizazioa (-)

c) Ondare propioaren eta sozietate menderatzailearenaren tresnak eskuratzea (-)

d) Ondare propioaren eta sozietate menderatzailearenaren tresnak besterentzea (+)

e) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

- Estatuko Administrazio Orokorrarenak

- Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoenak

ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK

2013. URTEA

Erakundea: HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO FINANTZAKETA-FUNTSA

(mila euro)

KAPITAL-AURREKONTUA "ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA"

- Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoko beste batzuenak
- Enpresa-edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoarenak
- Europar Batasunarenak
- Beste batzuenak

f) Bazkideen beste ekarpen batzuk (+)

- Estatuko Administrazio Orokorrarenak
- Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoenak
- Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoko beste batzuenak
- Enpresa-edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoarenak
- Europar Batasunarenak
- Beste batzuenak

g) Kanpoko bazkideen partaidetzak eskuratzea (-)

h) Kanpoko bazkideei partaidetzak saltzea (+)

10. KOBRANTZAK ETA ORDAINKETAK FINANTZA-PASIBOAREN TRESNENGATIK	6.441.900
a) Jaulkipena	32.441.900
1. Betebeharrak eta beste balio negoziagarri batzuk (+)	14.000.000
2. Kreditu-erakundeekiko zorrak (+)	1.141.900
3. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrak (+)	
4. Diru-laguntza, dohaintza eta legatu bihur daitezkeen zorrak (+)	
- Estatuko Administrazio Orokorrarenak	
- Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoenak	
- Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoko beste batzuenak	
- Enpresa-edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoarenak	
- Beste batzuenak	
5. Sektore publikoko maileguak (+)	17.300.000
- Estatuko Administrazio Orokorrarenak	17.300.000
- Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoenak	
- Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoko beste batzuenak	
- Enpresa-edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoarenak	
- Beste batzuenak	
6. Bestelako zorrak (+)	
b) Itzulketak eta amortizazioak	-26.000.000
1. Betebeharrak eta beste balio negoziagarri batzuk (-)	
2. Kreditu-erakundeekiko zorrak (-)	-26.000.000
3. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrak (-)	
4. Bestelako zorrak	

ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK

2013. URTEA

Erakundea: HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO FINANTZAKETA-FUNTSA

(mila euro)

KAPITAL-AURREKONTUA "ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA"

11. DIBIDENDUENGATIKO ORDAINKETAK ETA BESTELAKO ONDARE-TRESNENGATIKO ORDAINKETAK

a) Dibidenduak (-)

- Estatuko Administrazio Orokorrari
- Estatuko Administrazio Orokorraren erakunde autonomoi
- Administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoko beste batzuei
- Enpresa- edo fundazio-izaerako Estatuko sektore publikoari
- Beste batzuei

b) Beste ondare-tresna batzuen ordainketak (-)

12. FINANTZAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK (+/-9+/-10-11) 6.441.900

D) TRUKE-TASEN ALDAKETEN ERAGINA (+/-)

E) ESKUDIRUAREN ETA BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA (+/-5+/-8+/-12 +/-D) -38.744

ESKUDIRUA EDO BALIOKIDEAK EKITALDIAREN HASIERAN 425.353

ESKUDIRUA EDO BALIOKIDEAK EKITALDIAREN AMAIERAN 386.609